



IZEN EMATEAK OSTEGUNEAN IREKIKO DIRA!

2022. urteko uztailaren 8, 9 eta 10ean ospatuko da ehunmilak proben 11. edizioa.

Ostegun honetan, **azaroaren 11n, arratsaldeko 17:00etan irekiko da izen ematea.**

Partehartzaile kopuruak proba bakoitzerako honakoak dira:

- ehunmilak → 515 partaide (bai banaka zein taldeka).
- g2h → 515 partaide.
- mmm → 265 partaide.

Izen emate prozesua bideo bidez: https://youtu.be/0_t1A6g5MdA

Izen emateak irekitzeaz daude eta **prozesu** hau nola egin behar den jakinarazteko **argibideak** azalduko ditugu jarraian:

ehunmilak Ultra-Trail

- **2021eko azaroaren 11an arratsaldeko 17:00etan** irekiko da izena emateko epea eta urteroko pausuak jarraituz egin ahal izango da izen ematea.
- **ehunmilak**-eko webgunean (www.ehunmilak.com) edo **Rockthesport**-eko webgunean (<https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/ehunmilak-2022>) egin behar da izen ematea.
- **Bete** eskatutako **datuak eta ordainketa egin**. Jarraian izena emandako **ziurtagiria** iritsi behar zaizu jarri duzun **emailera** eta izen ematea ondo burutu bada honako link honetan agertu beharko da zure izena (<https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/ehunmilak-2022/partehartzaile-zerrenda>).
- Gogoratu izen ematea guztiz ontzat emateko (dorsal zenbakia izateko) **mediku eta gaitasun txostena bidali** behar zaiola antolakuntzari **dagokion** izen emate **epearen barruan** (<https://www.ehunmilak.com/eu/mediku-agiria-bidali/>).

goierriko 2 haundiak eta marimurumendi maratoia (2020ko berritasunak mantentzen dira)

- **2021eko azaroaren 11an arratsaldeko 17:00etan** irekiko da izena emateko epea, **2020ko edizioan izandako berritasunak mantentzen dira!!**
- Izen ematea webgune hauetako baten bidez egin:
 - **ehunmilak**-eko webgunean (www.ehunmilak.com).
 - **Rockthesport**-eko webgunean:
 - g2h <https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/g2h-2022>
 - mmm <https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/mmm-2022>
- Horretarako, **bete** eskatutako **datuak** eta ziurtatu izen-emate prozesua guztiz bukatu duzula ("**itxaron-zerrendan amaitu**" botoia **sakatuz**). Izena emandako **ziurtagiria** iritsi behar zaizu jarri duzun **emailera**.
- Izen-emate ordenaren arabera **itxarote zerrenda bat osatuko da**. **Izena emandako** korrikalari **guztiak** joango dira **itxarote zerrendara**.



ehunmilak
Ultra-Trail®



g2haundiak
GOTEKI TRAIL



marimurumendi
MARATON

- Korrikalariak izena ematen duen momentuan **ezagutuko** du itxarote zerrenda horretan duen **postua**. Horretarako, esteka honetan sartu beharko da:
 - g2h
<https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/g2h-2019/partehartzaile-zerrenda>
 - mmm
<https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/mmm-2022/partehartzaile-zerrenda>
- **2021eko azaroaren 11ko arratsaldeko 18:00etan** itxarote-zerrendan dauden **lehen 500 (g2h) eta 250 (mmm) korrikalariak** izango dute izena-emandakoen zerrendara pasatzeko aukera. Horretarako, korrikalariak aplikazioan jarri duen emailera, email bidez, mezu bat bidaliko zaio **ordainketa** egiteko jarraitu beharreko pausoak eta sartu beharreko esteka adieraziz.
- Korrikalariak **72 orduko epea** izango du **ordainketa egiteko**. Behin hori eginda, izena emandakoen zerrendara pasako da. Epe horretan izen-ematea formalizatu ezean, lasterketako plaza galduko da.
- **Ordainketa egin** ondoren izena emandako **ziurtagiria** iritsi behar zaizu jarri duzun **emailera** eta izen ematea ondo burutu bada honako link honetan agertu beharko da zure izena:
 - g2h
<https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/g2h-2020/partehartzaile-zerrenda>
 - mmm
<https://www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/mmm-2020/partehartzaile-zerrenda>
- Gogoratu izen ematea guztiz ontzat emateko (dorsal zenbakia izateko) **mediku eta gaitasun txostena bidali** behar zaiola antolakuntzari **dagokion** izen emate **epearen barruan** (<https://www.ehunmilak.com/eu/mediku-agiria-bidali/>).
- Izena emandakoen zerrendan bajarik balego, itxarote-zerrendan dauden korrikalariak deituko zaie itxarote zerrendako ordenaren arabera.

Informazio gehiago: www.ehunmilak.com

Facebook: <https://www.facebook.com/EhunmilakUltratrailG2h/>

Twitter: [@ehunmilakg2](https://twitter.com/ehunmilakg2)

Instagram: https://www.instagram.com/ehunmilak_ultratrail/

Harremanetarako: ehunmilakultratrail@gmail.com

Kontakturako telefonoa: 676180690 (Iñaki)

Traola ofiziala: **#ehunmilak22**